BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2266

205/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko kide batzuk kendu eta horien ordezkoak izendatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legeak bere 14. artikuluaren bitartez sortu zuen Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua. Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak bere 68.1 artikuluan deklaratu duenez, kontseilu hori da unibertsitate-sistema publikoaren helburuak zehazteko zeregina duen koordinazio, aholkularitza eta parte-hartzerako erakundea. 68.2 artikuluak dioenez, ordea, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen saileko sailburua edo berak izendatutako ordezkaria izango da kontseiluaren buru. Artikulu beraren a) idatzi-zatiak dioenez, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailaren ordezkari izango diren sei kide izango ditu Kontseiluak, sailburuak izendatuak.

Horrenbestez, Sailean izandako aldaketen ondorioz, bidezko da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilurako hautatutako sei kideen kargugabetzea eta izendapena egitea.

Horiek horrela, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko apirilaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DU:

1. artikulua.– Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko honako kide hauek kargutik kentzea, egindako lanarengatik eskerrak emanda:

– María Soledad Esteban Galarza andrea, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea.

– M.ª Antonia Ozcariz Rubio andrea, Hezkuntzako sailburuordea.

– José Carlos Crespo Velasco jauna, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea.

– Pedro Luis Arias Ergueta jauna, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea.

– María Begoña Ochoa Olascoaga andrea, Zientzia Politikarako zuzendaria.

– Zuriñe Gómez de Balugera López de Alda andrea, Unibertsitateko zuzendaria.

2. artikulua.– Honako hauek izendatzea Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko kide:

– Olatz Garamendi Landa andrea, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea.

– Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao andrea, Hezkuntzako sailburuordea.

– Jorge Arévalo Turrillas jauna, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea.

– Itziar Alcorta Idiaquez andrea, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea.

– Miren Begoñe Urrutia Barandika andrea, Zientzia Politikarako zuzendaria.

– Francisco Javier Alonso Aldama jauna, Unibertsitateetako zuzendaria.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko apirilaren 16an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Política eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.